

CA
C
N
I
E
R
R
I
A
T
E
C
N
I
C
A
N
G
E
N
I
E
R
I
A

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

VITORIA-GASTEIZKO
INGENIARITZA
ESKOLA
ESCUELA
DE INGENIERÍA
DE VITORIA-GASTEIZ

VITORIA-GASTEIZKO INGENIARITZA ESKOLAKO BULETINA

INFORMAZIO BULETINA 115. zb.
2023ko iraila

www.ehu.eus/vitoria-gasteizko-ingeniaritza-eskola

EDUKIAK

Kudeaketa akademikoa

- 2023-2024 ikasturtearen hasiera

Titulazioen sustapena

- 2023ko jardueren ibilbidea

BIZKOR EV02-ren aurkezpena

Beste batzuk

1. SER topaketak
2. Estazio meteorologikoa Eskolan
3. Ingeniaritza eta generoa, Inmaculada Tazo
4. Eskolako irakasleek lortutako plazak
5. ROBOTEKIN elkartearen batzarrak
6. Amvisa hitzarmena

Kudeaketa akademikoa

2023-2024 ikasturtearen hasiera

Irailaren 8an egin genien ongietorria gure Eskolan hastera doazen lehen mailako ikasle berriei, datozen urteak gurekin igaroko baitituzte.

Aurreko urteetan ohikoa denez, Gasteizko Ingeniaritza Eskolak "Harrera programaren" bidez hartuko zituen ikasle berriak aurkezpen ekitaldi batean; ikasle ohi batzuk ere bertan izan ziren, etorkizuneko ingeniariekin partekatzeko gure Eskolan izandako esperientzia eta ingeniartzako lan mundura gerturatzeko.

Beraz, irailaren 11n hasi genuen 2023-2024 ikasturtea Eskolako maila eta gradu guztietan.

Ongi etorri!

Titulazioen sustapena


2023ko jardueren ibilbidea

Maiatzaren 24tik 2022-2023 ikasturtea amaitu arte egin da gure Eskolan "2023ko jardueren ibilbidea". Horren xedea da gure ingeniartzekin zerikusia duten arlo zientifikoen berri ematea Batxilergoko 1. mailako eta prestakuntza zikloetako ikasleei.

Honako jarduera hauek egin dira:

- Sistema robotikoen programazioa.
- Eraikitze diseinatu.
- Ingurumena eta Ingeniaritza Kimikoa, elkarren eskutik.
- Ezagutu motosport-eko Formula Student taldea barrutik!
- Motostudent: lehiaketako moto baten azpimuntaiak, sistemak eta parametroen neurketa.
- Mugikortasun elektrikoa: etorkizuneko mugikortasuna I.

BIZKOR EV02-ren AURKEZPENA



Gasteizko Foruen plazan aurkeztu zen Bizkor EV02, Gasteizko Ingeniaritza Eskolako Formula Student Vitoria ekipoaren monoplaza berria. Ekitaldian izan ziren Mainer Etxebarria, Gasteizko alkatea, Saray Zárate, Ekonomiaren Garapen eta Berrikuntza Saileko foru-diputatua, Manoli Igartua, UPV/EHUko Arabako Campuseko errektoreordea eta Jon Urresti, Vital Fundazioko presidentea.

Monoplaza berriari Bizkor EV02 izena jarri diote eta 2021ean aurkeztu zen FSVren hasierako kontzeptuaren eboluzio berria da. Ibilgailu berri honek karbono zuntzarekin egindako xasis berria du, eta composites materialak erabili dira ibilgailua arinagoa izateko; lau gurpilean motor elektrikoak ditu, trakzioarako eta beste garapen handi gehiago ere bai, hala nola kit aerodinamiko oso eta eboluzionatu bat.

Formula Student Vitoria (FSV) proiektuan goi-mailako teknologia duen monoplaza bat planifikatu, diseinatu eta egin dute ikasleek modu autonomoan eta autodidaktikoan, tokiko industriako eragileekin lankidetzan estuan, ikaskuntza oso praktikoa izateko eta etorkizunean ingeniartzako zenbait alorretan ezarriko diren berrikuntzak garatu ahal izateko. Unibertsitateko 40 ikasle dauden taldean eta Gasteizko Ingeniaritza Eskolan du egoitza.

“Unibertsitatea harro dago nazioartean aintzatetsitako lehiaketa baten zati izateagatik, mundu osoko 100 taldetan 3.000 ikasle baino gehiago biltzen baititu –adierazi zuen errektoreordeak aurkezpenean-. Formula Student proiektua prestakuntzarako esperientzia aparta da, zalantzarik gabe, eta funtsezko hiru elementu konbinatzen dira: berrikuntza, talentua eta dedikazioa. Berrikuntza argi dago, azaldu diguzuen legez, urtero teknologia eta material berriak sartzen baitituzue, eta ingeniartzako zenbait alorretan

etorkizunean aplikazioa izango baitute. Talentua ere nabaria da, zuen ezagutzak eta trebetasunak hau bezalako proiektu ambiziotsu batean ezartzeko gaitasuna baituzue. Eta dedikazioa ere ezinbestekoa da, emaitza nabarmenak lortzeko lanordu asko eta ahalegin handia behar baitira, zuek ongi dakizuen bezala”.

Aurten dagoeneko parte hartu dute motorsport Formula Student formatuko probetan, hiru lehiaketatan onartu baitute sartzeko proba gogorrak egin ondoren: Ingalaterrako Silverstone zirkuituan (FS ImechE UK, uztailak 19-23); proba berritzaile batean Castelo Branco (Formula Student Portugal, uztailak 31-abuztuak 6) eta Circuit de Catalunya Montmeló proba klasikoan (Formula Student Spain, abuztuak 6-12).

(*) ITURRIA: Campusa

Beste batzuk

1. - SER topaketak

Maiatzaren 10ean izan zen SER Vitoria topaketa; Garapen Jasangarriko Helburuei buruzko topaketa honetan Eskolako zuzendari Zuriñe Gómez de Balugerak hartu zuen parte Marivi García, Axier Urresti, Unai Zabala eta Hugo Uretarekin batera.



2. - Estazio meteorologikoa

Duela egun batzuetatik, Gasteizko Ingeniaritza Eskolako teilatu lauan PCE-FWS 20N anemometroa dugu; PCE-Instruments Tobarra enpresak utzi digu zehatz-mehatz hautemateko haizearen norabidea eta abiadura, tenperatura, hezetasun erlatiboa, euria, aurreikuspena eta eguraldiaren aurreikuspeneko joera.

Gainera, anemometroa alarma funtzioak aktibatzen aukera du (airearen abiadura, presio atmosferikoa, etab.). Balio meteorologiko horiek irratiz igortzen dira basera, gehienez ere 100 metrora.

Instalazio hori UPV/EHuren Campus Bizia Lab (CBL) proiektuetako baten barruan dago, Gasteizko Ingeniaritza Eskolako irakasle Melchor Gómez Pérez da koordinatzailea, 7 irakasle, TEKAZELeko kide bat eta GrAL (Mini aerosorgailu baten instalazioa Gasteizko Ingeniaritza Eskolan, mota honetako energia berriztagarriaren osoko bideragarritasuna aztertzeko) eskolan egiten ari den 4. mailako ikasle bat daude.

3. - Industria Ingeniaritza eta generoa Euskal Herrian, Inmaculada Tazo

Emakumea Ingeniaritzan Nazioarteko Eguna zela eta, ekainaren 23an hitzaldi interesgarria eman zuen Inmaculada Tazok, Gasteizko Ingeniaritza Eskolako irakasleak, Arabako Industri Ingeniarien Elkargo Ofizialean.

Bere doktorego tesiko ondorio nagusiak azaldu zituen, Industria Ingeniaritzaren eta generoaren artean Euskal Herrian dagoen harremana aztertu baitu.

4. - Eskolako irakasleek lortutako plazak.

Rosa Río → Unibertsitateko katedraduna

Álvaro Rodríguez → Agregatua

Jon Álvarez → Agregatua

Ana Boyano → Irakasle titularra

Amaia Calleja → Irakasle titularra

Jose Manuel Gonzalez → Agregatua

Gorka Gallastegui → Agregatua

Unai Fernández Gámiz → Irakasle titularra

5. - ROBOTEKIN elkartearen batzarra

Euskadiko robotika eta automatizazio arloko lehenengo 'hub'a zenbait urrats egiten ari da eta argi dago kualitatiboki eta organikoki hazten ariteaz gain, sektore horretako eragile adierazgarrienen interesa ere baduela. Eta hori guztia Elkarte gisa ofizialki eratu eta hiru hilabete eskasera.

Input horietako azkena Ezohiko Batzar Nagusian baieztatu zen; Arabako Parke Teknologikoan izan zen batzarra ekainaren 30ean eta aho batez onartu zen Robotekinen hamaika bazkide berri sartzea. Horren bidez gaur egun 'hub' horrek duen enpresa-ordezkaritza bikaina areagotu egiten da robotikaren eta automatizazioaren balio-katei dagokienean.

Elkartean sartu diren erakunde berriak honako hauek dira: DHL Exel Supply Chain, Araba Garapen Agentzia, Smartlog Services, Diseños Daco, Eroski, Ingemat, Inser Robótica, Europa Institutua, Teknologia Aeronautikoen Zentroa, Olive Robotics eta Zenialab Automation Intelligence. Beste zazpi gehiago sartuko dira laster, beharbada, gaur egun horretarako izapideak egiten ari baitira.

Hamaika erakunde berri sartuta, gaur egun ia 40 erakunde daude Robotekinen, batzuk enpresak dira, beste batzuk zentro teknologikoak eta unibertsitateak ere bai.

6. - Uraren gela UPV/EHU- AMVISA

Manoli Igartua Olaecheak, Euskal Herriko Unibertsitateko Arabako Campuseko errektoreordeak, eta Batxi Aranburu Osoriok, Aguas municipales de Vitoria-Gasteiz SA (AMVISA) enpresako gerenteak, lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuten uztailearen 5ean 'AMVISA Uraren Gela' unibertsitate-enpresa gela sortzeko. Horren xedea izango da prestakuntza eta ikerketako jarduketak egitea eta uraren ziklo osoko etapa guztietako kudeaketa, ustiapen eta administrazio jasangarriarekin zerikusia duten ezagutzak transferitzea.

Horretarako, eta hitzarmenean hitzartuaren arabera, aztertze eta ikertze lan akademikoak egingo dira hezkuntza lankidetzako programen esparruan (borondatezko praktikak), gradu amaierako lanak, Master amaierako lanak eta doktore-tesiak ('Industriako doktore' aipamena dutenen lehentasunarekin); elkarrekin antolatuko dituzte jardunaldiak, ikustaldiak, mintegiak eta prestakuntza ikastaroak, ezagutza sortzen eta zabaltzen laguntzeko, eta ikerketa zientifikoko edo garapen teknologikoko ikerketa proiektuak egingo dira –kasu bakoitzerako sinatu diren berariazko hitzarmenetan zehaztuko da edukia- eta ikerketa zientifiko eta teknikoko baterako azterketa zehatzak ere egingo dira, lanerako talde mistoak sortuta.

Gainera, laguntza-bekak ematea aurreikusten da eta/edo laguntza-programak ezartzea ere bai, unibertsitateko lanak sustatzeko, bultzatzeko eta garatzeko.

Hitzarmen horrek indartu egiten ditu Farmazia Fakultatea eta Gasteizko Ingeniaritza Eskola azken urteetan AMVISArekin garatzen ari diren lanak bezalakoak.

Jarduerak egiteko, Gelak lokal bat izango du Arabako Campuseko Unibertsitate pabilioian eta AMVISArekin ekarpenarekin gaituko eta hornituko da.

Hitzarmena lau urtetarako da, eta beste lau urtez luza daiteke bi aldeek berariaz adostuz gero.

(*) ITURRIA: Campusa



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

VITORIA-GASTEIZKO
INGENIARITZA
ESKOLA
ESCUELA
DE INGENIERÍA
DE VITORIA-GASTEIZ